

## Zor gaiztoko burbuila lehertu zen abuztuan

“Ostegun beltza” izendatu dute komunikabideetan joan den abuztuaren 9a. Egun horretan munduko burtsetara iritsi baitzen AEBetako hipoteka ustelen inguruan sortutako eztanda. Orain eztabaidatzen da krisia noraino helduko den, noiz arte... eta agorrileko ekaitza den ala kalamitatea.

### ABUZTUAREN 9AN HERRITAR GEHIENAK

oporretan zeuden, asko eta asko etxetik urruti gainera, eta gutxi aditu zuten egun hartan munduko burtsetan gogor jo zuen trumoi. Abuztuan ekonomi albisteei erreparatu ez dienak, apenas jakingo duen finantzen alorrean zerbait gertatua dela. Baina bakantzetatik etorritako egunerokotasunean oraindik doidoi “lur hartzen” ari den herritarrek ondoko asteetan udako ekaitzaren ondorioez albiste ugari izango du.

Zer lehertu da, bada, gu hondartzan ginen aste horietan? Laburbiltzen hasita, esan daiteke urtebetez luzatu zirela euri zaparrada iragartzen zuten tanta lodiak: AEBetan hemen baino errazago ematen dituzte etxea erosteko kreditu hipotekadunak, eta azken urteotan etxegintzako burbuilaren beroaldian beren bizitegia erositako herritar askok orain ezin zituzten hileroko kuotak ordaindu. Horiek zerbait okertzen ari zela abisatzen zuten. Hala ere, Europako herritarroei esaten zitzaizgun hipoteken merkata AEBkoetatik oso ezberdina zela eta horregatik hemen etxegintzaren hazkundera mantsotzen ari zen arren, Europan ezin zela horrelakorik gertatu.

Abuztuaren 9koak alderantzizkoa erakutsi zuen. Burtsek behera egin, izen –eta etekin– handiko banku batzuek funtzionatzeko diru arazoekin topo egin, inbertsio funts batzuk krisian sartu eta mundu osoko banku

zentraletan bankuei diru erraza ematen hasi behar izan dutenean, orduan, abuztuaren 9aren ondorengo egunetan, ikusi dute aditu guztiek oraingoa udako erauntsi laburra baino zerbait gaiztoagoa zela.

Hona gertatuaren tamaina adierazten duen tanta bat. AEBetako Fed banku zentralerako 12 burukideetako batek, William Poolek, abuztuaren 15ean komunikabideei esan zien burtsetan halako trumoi batzuk zeudela baina Fedeko agintariek ez zutela eskurik sartu behar, hori hondamendia zatekeelako (“calamity”, esan zuen ingelesez). Bi egunen buruan, 48 ordu baino ez, Fedeko beste kide guztiekin batera Poolek erabaki zuen banku zentrala sisteman dirua sartzen hastea, diru asko eta azkar gainera. Zer delata eten hilabete luzeetan defendatutako estrategia?

Hipoteken krisia zena –AEBetako banku eta bestelako prestatzaile asko hondoratu– abuztuaren hasieran burtsetan diru falta bihurtua zen, likidotasun krisi, mundu osoko banku gehiago eta burtsa guztiak harrapatuz. Eta lehenbizikoz aipatzen hasi zen ea ez ote zen zorrak pagatu ezin askoz globalago baten hasiera.

Publikatu diren analisien artean, deigarrietako bat Open Democracy gunean Ann Pettifor-ek idatzitako hau: “Debtonation: how globalisation dies”. (Debtonation: nola hil den glo-

Matson-ek *Saint Louis Post Dispatch* egunkarian argitaratutako “cartoon” honetan Hipoteken Merkata irudikatzen du oso baldar eraikitako etxeak. “Subprime kredituak” eta “Ordain ezinak” dago idatzita zartaduretan. Exekutibo itxurako gizonetako batek diotso besteari: “Pitzadura batzuk zimenduetan, baina gainerakoan egitura sendo dago”. Duela urtebete sartu ziren krisian AEBetan kreditu hipotekadunak, eta pixkanaka kalteak finantzetako beste alor askotara iritsi dira, berme gutxi kreditu horiek, gero burtsetan espekulazio operazio ugariaren oinarri zirelako. Orain arte zipritinak heldu zaizkie zenbait banku eta inbertsio funtsi, AEBetatik urrun mundu osoan. Aditu batzuek uste dute banku zentralak beren ortodoxia liberala utzi eta merkatan eskua sartzen ari direnerako, banku handi batzuk ere harrapatuta daudelako edo kalteak diruditen baino sakonagoak direlako izan behar duela.

balizazioa). Leherketa esan nahi duen “detonation” eta zorra den “debt” hitzekin egiten du jokoa

Pettifor andereak, munduan izen bat egina duen ekonomialaria bera, 2003an gune berean honakoa idatzia zuen: “The coming first world debt crisis” (Badatorren lehenbiziko zor krisi mundu mailakoa). Titulu zera daraman liburua ere plazaratu zuen 2006an. Ageri denez, Pettifor krisi honen zain zegoen. Orain ikusteke dagoena da ea berak uste bezain katastrofikoa gertatuko den –globalizazioaren arauak aldarazterainokoa– ala... Kasandra moderno baten antzo bere profetia noiz beteko zain segi beharko duen.

### Diruari bizi propioa eman zaionean

Pettiforren ustez, “debtonation day” horrek erakutsi du zein oinarri ahulena gainean dagoen eraikita globalizazio deitu dena. Finantzen alorra araurik gabe uztearen poderioz gobernuak ahalmenik gabe geratu dira kapital eta salerosketa merkatu zabaldu berrian. Araurik gabetutako finantzek lortu dute langileen prezioa jaitea, langileak eta ekosistemak neurri guztien gainetik zurrupatzea, eta horrela finantz tresna berriak kontrolatzen dituzten erakunde, familia eta pertsona aberatsak are gehiago aberastu dituzte.

“Araurik gabeko finantza honek murgildu du mundua zorretan eta orain hondoratu du mundu mailako



merkatu krisian”, dio Pettiforrek. Baina horra bitxikeria: Estatuari ahalmen oro kendu arteko onik izan ez duen finantzak berak korrika Estatuarengana jo du krisia gainditzeko laguntza eske. Beti bezala, herritarrak pagatzaile izatekotan.

“Finantz merkatuen ‘debtonation’ hori dela medio, munduari datorkio depresio luze, mingarri eta frontierarik gabekoa”. Ekonomialari honen iritzian, erakunde oso garrantzizkoak daude arriskuan, tartean korporazio erraldoien arteko salerosketa operazio handiak finantzatu dituzten bankuak. Zorra eskutik eskura erabili baitute, gero eta handiago, “pasa hurrengoari” jolasean ari bailiran.

Baina izango da enpresa horiek baino zigortuagorik. “Herritar arruntak, ordaintzeko daukaten ahalmena

baino askoz handiagoko zorrak egitera bultzatu dituzten herritarrak: beren pentsioak, etxeak, lanak, bizimoduak eta etorkizunerako itxaropenak galduko baitituzte. Herritarrok indartu dute ekonomia azken hogeitau urteotan, baina gero horiek, eta ez finantzen munduko ‘herriaren ongileek’ (banku zentralerako buruek, finantz ministroek eta agintariek), herritarrek eraman behar dute krisiaren zama”.

Ekonomialariek diruaren eta zorra- ren ikuspegi erratua daukate, Pettiforren aburuz. “Dirua ‘neutrala’ balitz bezala egiten dituzte analisiak, eta kredituen garrantziaz ez dira jabetzen. (...) Horrek esplikatzen du ekonomialari ortodoxoen itsutasuna”. Horregatik, ekonomialariak bezala agintariak gauzak bideratzeko egon daitekeen denbora galtzen ari dira.

Komunikabide gehienetan oraingo ekaitza aurreko urteetako azken burbuilekin eta krisiekin alderatzen dute adituek. Ann Pettiforrek, aldiz, konparaketak 1929ko Depresio Handiarekin egin behar direla uste du. Urte hartan, urriaren 29an, korporazioen akzioek hondoa jo zuten eta 30.000 milioi dolar baino gehiago desagertu ziren AEBetako ekonomiatik. Orduan ere izan ziren “horrelako ekaitzak beti gertatu dira” esan zutenak.

Krisi gogorra, faxismoen igoera eta mundu gerra bat pasa ziren ondoko urteetan. Eta handik ateratzeko gakoa Pettiforren ustez John Maynard Keynes ekonomialariak eman omen zuen: finantzen sektoreari burua makurrarazi behar zaiola eta umildu behar duela ekonomia globalaren morroi lanetara, nagusi izateari uko eginez. Aldi berean, estatuak kontrolatu behar dituela kapitalen joan-etorriak eta kredituaren sorrera; hain zuzen ere, kontrol hori esku pribatuetara pasea zen-eta 1920ko hamarkadan.

Lezio haiek azkar ahaztu ziren, ordea, eta gaur munduak bizi du finantz merkatuen desregulaziorik basatiena. Hala zen, abuztuaren 9an ultraliberalek aitatxo Estatuaren eskuhartzea eskatu zuten arte.

Aipatu duguna bezain analisi katastrofikoak Ann Pettifor eta beste lau katuk sinatu izan dituzte abuztu honetan. Gainerakoek uste dute aste gutxitan baretuko direla gauzak. Baina denek aitortzen dute astindu gehiago izango dela laster. Abuztukoa, AEBetan urtebete lehenago hasi baitzen. ■

<http://www.argia.com/nethurbil.php>  
helbidean, gai honi buruzko informazio gehiago eta Interneteko loturak.



**Konfiantza delako garrantzitsuena**

Egunez egun zure konfiantza geureganatzen dugu, etengabe produktu berriak eta zerbitzu berriak bilatzearen bidez.

**ZINKUNEGI OPTIKA**

Hernani, 4 - 30004 DONOSTIA  
e-posta: zinkunegi@euskainet.net  
TEL: 943 420 624

G A R A N T I A